

Aldundiak eta Arabako euskaltegiek lanean jarraituko dute helduen euskalduntzea sustatzen jarraitzeko

Foru erakundeak 75 eta 240 euro arteko beherapena eskainiko die atxikitako zentroetakoren batean izena ematen duten arabarrei

Gasteiz, 2018ko irailaren 20a. Arabako Foru Aldundia eta lurraldeko euskaltegiak elkarlanean arituko dira aurtien ere euskaraz ikastea ahalik eta errazena izan dadin helduentzat. Horretarako, iazko itunarekin aurrera jarraituko dute. Itun horri esker, pasa den ikasturtean, foru erakundeak beherapena eskaini zien zentro horietan ikasi zuten 1.100 ikasleri.

“Lortu nahi duguna da euskara ikasi nahi duten helduek, euskalduntzeko bidea urratzen hasi nahi dutenek, ahalik eta erraztasunik handienak izatea horretarako, bai eta meritu handikoa dela irizten diogun xede hori erdiestea eragotziko dien eragozpenik ez izatea ere”, azaldu du Joseba Pérez de Heredia Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendariak; Pérez de Herediaren esanetan, “erakundeen erantzukizuna da euskara erabiltzeko aukera ematea hizkuntza hori dakitenei, eta ez dakitenei aukerak ematea ikasteko”.

Foru ordezkariak bere poza adierazi du iazko ikasturtean izandako erantzunagatik, handia izan baitzen Gasteizen ez ezik, lurraldearen zati handi batean ere. “Izena eman zuten 1.100 pertsonatik % 73k hiriburuan ikasi zuen, baina beste leku batzuetako ikasleak ere izan genituen: Aiaraldeakoak (204), Arabar Errioxakoak (48) eta Lautadakoak (45)”, nabarmendu du.

Horiek horrela, Euskara, Kultura eta Kirol sailak deialdia egingo du berriro 2018-2019 ikasturtean A1, A2, B1 eta B2 mailetan matrikulatzen diren gure lurraldeko eta Trebiñuko 18 urtetik gorakoen euskalduntzea bultzatzeko. 248tik 400 ordura arteko moduluetan izena ematen dutenei 75 euroko beherapena egingo zaie, 120 eurokoa 401etik 600 ordura arteko moduluetan izena ematen dutenei, eta 240 eurokoa ordu gehiagoko moduluetan izena ematen dutenei.

Prensa Oharra Nota de Prensa

“Arabako edo Trebiñun HABEk homologaturiko euskaltegiren batean A1, A2, B1 eta B2 mailarikoren batean matrikulatzen diren pertsonentzat dira laguntzak, salbu eta administrazioko langileentzat; diru laguntza jaso nahi dutenek 2018ko ekainaren 29rako adin nagusikoak izan behar dute eta egun horretarako Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian erroldatuta egon”, esan du Pérez de Herediak.

Diru laguntzaren eskaera orria euskaltegietan egongo da eskuragarri, edo, hala badagokio, honako web orrietan jaitsi ahal izango da: www.araba.eus edo www.euskaraba.eus. Matrikulazio epea irekita egongo da 2018ko irailaren 28ra arte.